Gü Harreragunea
Servicio de acogida

ERRENTERIA UDALA

## ARLOA
*HAURRAK, NERABEAK ETA GAZTEAK*

## GAIAK
*Aisialdia, familia gunea, ludotekak, gaztelekuak, opor-programak, 18+ etxebizitza komunitarioak.*

## Zer egin dezaket bertan:

- *Haurren, nerabeen eta familien udal aisialdi-zerbitzuei buruzko informazioa eta orientazioa jasotzea.*
- *Familia Gunearen, Udal Ludoteken eta Gaztelekuen inguruko informazioa jasotzea.*
- *Udako eta neguko opor-programen inguruko informazioa jasotzea.*
- *18+ etxebizitza komunitarioen proiektuari buruzko informazioa jasotzea.*
- *Izen-emateei, kuotei eta baldintzei buruzko azalpenak jasotzea.*
- *Beharrezkoa denean, dagokion baliabide edo programara bideratzea.*

## Gaitasun ekonomikoaren araberako tarifak:

*Hainbat ikastaro eta zerbitzuren tarifak, erabiltzailearen gaitasun ekonomikoaren arabera egokitzen dira. Dagokion eskabide orria, ikastaro edo zerbitzuaren eskabidearekin batera entregatu behar da.*

## Baliabideak:

- **Familia Gunea:** *0–6 urte bitarteko haurrentzat eta haien guraso edo tutoreentzat zuzendutako aisialdirako gune egokitua.*
- **Udal Ludotekak:** *6–12 urte bitarteko haurrei zuzendutako aisialdi-espazio pedagogikoak, hezitzaileen laguntzarekin.*
- **Gaztelekuak:** *13-17 urte bitarteko nerabeei zuzendutako doako aisialdi-guneak, jarduera ludiko eta hezitzaileekin.*
- **Udako oporrak:** *Udan antolatutako aisialdi-programak: Txikiak eta Udalekuak, Errenteabentura eta Kanpabentura.*
- **Neguko eta Udaberriko oporrak:** *Ludotekek eta gaztelekuek oporraldietarako antolatzen dituzten jarduera bereziak dira bertako erabileei bideratuak.*
- **18+ Etxebizitza Komunitarioak:** *Gazteen emantzipazioa errazteko komunitatean oinarritutako etxebizitza-proiektua.*

Harreragunea
Servicio de acogida

ERRENTERIA UDALA

## Hezkuntza eta Gazteria Saila

*Errenteriako Udaleko Hezkuntza eta Gazteria Sailak haur, nerabe, gazte eta familiei zuzendutako aisialdi-zerbitzuen eskaintza koordinatzen eta kudeatzen du. Bertan, zerbitzu horien informazioa, orientazioa eta izen-emateei buruzko azalpenak jaso ditzakezu.*

| | | |
|---|---|---|
| **Kokapena**<br>*Merkatuzar*<br>*Pablo Iglesias kalea 3, beheko solairua* | **Ordutegia**<br>*Astelehenetik ostiralera 09:00–14:00* | **Telefonoa**<br>*943 449 606* |
| **Helbide elektronikoa**<br>*hezkuntza@errenteria.eus*<br>*gazteria@errenteria.eus* | **Webgunea**<br>*www.gazteria.errenteria.eus* | |

## Gaitasun ekonomikoaren araberako tarifak

*Informazio gehiago, eskabide orriak eta simulatzailea:*

**Webgunea**
*www.errenteria.eus/zu/progresividad*

## Familia Gunea

| | | |
|---|---|---|
| **Kokapena**<br>*Jose Luis Caso aretoa* | **Ordutegia**<br>*Astelehenetik ostiralera: 17:00–19:00*<br>*Larunbatetan: 10:00–12:00* | **Izen-ematea**<br>*Iraila* |

## Udal Ludotekak

| | | |
|---|---|---|
| **Kokapenak**<br>*Agustinak, Beraun, Erdigunea, Gabierrota, Kaputxinoak, Markola* | **Ordutegia**<br>*Astelehenetik ostiralera 17:30–19:30* | **Izen-ematea**<br>*Iraila* |

## Gaztelekuak

| Kokapenak | Ordutegia | Izen-ematea |
|---|---|---|
| *Beraun eta Gabierrota* | *Asteazkenetik larunbatera: 17:30–20:30* | *Iraila* |

## Udako oporrak

| Denboraldia | Izen-ematea |
|---|---|
| *Ekaina–uztaila* | *Martxoa* |

## Neguko eta Udaberriko oporrak

| Denboraldia | Ordutegia |
|---|---|
| *Eguberrietako eta Aste santuko oporraldian* | *Ordutegi bereziak (kontsultatu)* |

## 18+ Etxebizitza Komunitarioak

*Informazioa eta orientazioa Hezkuntza eta Gazteria Sailean.*